

HARRI-JASOTZEA

JOKOAREN OINARRIA

Lagun batek, bere indarrez baliatuz, eta inolako lanabes edo mekanismorik erabili gabe, harri bat jasoko du, lastratua zein ez, lurretik sorbaldaraino, lurretiko horizontaltasuna lortu arte, kontutan izanik harriaren pisua eta ezaugarriak baita ekitaldiak ere.

HARRIAREN EZAUGARRIAK

1.art.- Erabilitako materiala harri naturala izango da, harrobi edo haitz beretik ateratakoa.

2.art.- Ez da onartuko ageriko material arrotzik harrian, ezta ere harrobi edo haitz beretik ez datozen bi harri, kolarekin zein beste eraren bat erabiliz itsatsiak.

3.art.- Harri zatiren bat hautsiz gero, kola bidez itsatsi ahal izango da, baina baldintza batekin: Itsatsitako harria kalitate eta pisu espezifiko berekoa izan dadila.

Era berean, harriak arrakalaren bat izanez gero, ez hausteko harginak jartzen dion ziria edo barratxo onartuko da. Ziriek edo barratxoek ez dute kilo eta erdi baino gehiago izango.

Salbuespen hauek onartzen dira, adibidez, harri zati bat hautsi eta kolaz itsatsiz gero, 1. Artikuluan zehazten den oinarritzko baldintza aldatzen ez delako.

4.art.-

a) Harri zaharrak, zilindro eta laukizuzen egiturakoak, ezin izango dira lastratu.

b) Harri berriak, direla zilindrikoak, esferikoak, kubikoak, edo laukizuzenak, lastratu ahal izango dira, berezkoa duten materiala ez den beste batekin. Lehiaketetan zein probetan ez da onartua izango bestelako materialezko inkrustazio nabariak dituen harria, nahiz eta egituraz arauzkoa izan.

c) Marka berria egiteko erabiliko den harri berri oro, lastratua dela ulertuko dugu, eta hala jasoko da idatziz aktan. Marka jakin hori egin nahi duenak esaten badu harri-puskak ez duela bestelako material erantsirik salbu. Horrela gertatuz gero, Euskadiko Herri Kirol Federakuntzak, homogeneotasuna ziurtatzeko aukerako bitartekoak erabiltzea beretzat gordetzen du, eta Epaileak, harria prezintatu dezake behar bezala egiaztatu arte.

5.art.- Harriek honako irudi geometrikoren bat izan beharko dute:

a) Kubikoa: Kubo edo hexaedro irudia. Sei aldeak karratuak izango dira eta neurri berekoak. Ez du heldulekurik.

b) Esferikoa: izenak esan bezala, harrizko bola. Ez du heldulekurik.

c) Betiko harri laukizuzena: prisma erregularreko harria, paralelogramoa. Lau alde luzeenak laukizuzenak dira. Oinarria eta honen kontrako aldea karratuak dira. Baditu bi zulo edo helduleku eta goiko aldean atzamarrentzat bi leku, bloke bertan eginak. Zulo hauen bolumena guztira ezingo da $1,5 \text{ dm}^3$ baino handiagoa izan (1,5 litro ur).

d) Laukizuzen berria: Betiko harritik duen diferentzia da ez duela zuloentzat edo heldulekuentzat bolumenean mugarik. Harria edozein aldetatik arindu genezake, kontrako oinarriko ertzak perimetro guztian ukitu gabe badaude.

- Barneko goiko erpinak (kirolariaren izterrak ukitzen dituztenak) zentimetro bat arte higitu ahal izan-go dira. Neurri hori erpinetik hasi eta egindako higaduraraino neurtuko da (eskuairaren bidez).
- Ezkerreko eta eskuineko paralelogramoak barnealdeko ertzetan (kirolariaren izterrak ukitzen dituztenak) aldatu ahal izango dira, goiko eta beheko karratuak aldatzen ez badira. Aldaketa hori, harriaren goiko erdialdean kokatuko da, hamar zentimetro arteko ertz ebakitze luzeraz eta bi zentimetroko gehienezko sakontasunez.
- Harrien heldulekuek ezkerreko eta eskuineko paralelogramoen ertzak ebaki ahal izango dituzte.

Esku batekin altxatzeko, aurrealdeko paralelogramoan beste helduleku bat jarri ahal izango da, baita harriaren oinarrian ere, ertzei eragin gabe.

e) Betiko zilindrikoa: harrizko zilindroa da. Baditu bi zulo edo helduleku eta goiko aldean atzarmentzat bi leku, bloke bertan eginak. Baina zuloen bolumena guztira ezingo da 1,5 dm³ baino handiagoa izan (1,5 litro ur).

f) Harri zilindriko berria: Betiko harritik duen diferentzia, ez duela zuloentzat edo heldulekuentzat bolumenean mugarik eta harria edozein aldetatik arindu genezakela. Esku batekin altxatzeko, aurrealdean beste helduleku bat jarri ahal izango da, baita oinarrian ere.

Harri berrietan (zilindrikoa izan edo laukizuzena izan), oinarrian bestelako harri kalitatezko tapa bat jartzea edo aldatzea onartuko da, gehienez hiru zentimetrotakoa.

Harrien atzealdeko tapen torlojuak tirafondoekin estalita egongo dira (ez-nabarmen gera daitezela).

HARRIEN NEURRIAK

6.art.- Harri laukizuzenen eta zilindrikoen altuera 24 eta 32 hazbete artekoa izango da, hots, 55,66 zentimetrotik 74,21 zentimetrotara.

Lehenago egindako errekorrak hausteko, jatorrizko errekorra egiteko erabilitako neurri berdinetako harriak erabiliko dira.

Dagokion lurralde federaziora errekor edo marka bat egiteko eskaera aurkezterakoan, bertan egin nahi den markaren kiloak jarriko dira, baina, probaren akta ofizialean, plazan proba egunean harria pisatzean pisatu duena jarriko da.

7.art.- Harri kubikoen eta laukizuzenen alboetako neurriek, zentimetro 1eko tolerantzia izan dezakete alde batetik bestera.

HARRIAK PISATZEKO ETA PROBATZEKO PROZEDURA

8.art.- Federazioek kontrolaturiko Harri-jasotze lehiaketa guztietan harriak eta kirolariak pisatu egingo dira. Pisaketaren ardura federazioarena edo bere ordezkariena izango da.

Normalean, harriak proba hasi baino ordu bete arinago pisatuko dira. Pisatzeko tresna nahi duten zaletu guztien aurrean frogatuko da, eta harria ere nahi duten guztien aurrean pisatuko da.

9.art.- Harrien pisan 0,500 kg-tik beherako tolerantzia onartuko da.

Honek ez du esan nahi 100 kilo pisatu dituen harria 9,500 kilotara jaitsi daitekeenik. Esan nahi duena da, pisatzeko tresna frogatu ondoren, 99,750 kilo baditu, kasu, 100 kiloko harria dela ulertuko dugula, pisatzeko tresnak berak izan dezakeen balizko akatsa zuzentze aldera.

Harria pisatu ondoren, pisu handiagoa balu, ezarritako pisura arte jaitsi ahal izango dugu harria.

10.art.- Harriak adierazitako pisua baino txikiagoa balu, adierazitako tolerantzia kontuan hartuz, ezin izango litzateke proba baldintza horietan burutu eta ondorioz, interesduna aurrez jarritako baldintzak betetzen dituen harri bat aurkeztera behartuta egongo da. Horretarako, eta berebiziko kasuetan, harriari kolaz erantsi ahal izango zaizkio beharrezko gramoak, harriak aurrez jarritako pisua bete arte.

11.art.- Harria behar bezala aurkeztu ezean, harria daukanak proba galdu duela ulertuko dugu.

12.art.- Ezarritako baldintzak betetzen dituzten guztietan, parte-hartzaile guztiek egoki iriztitako harri guztiak eraman ditzakete, eta epaileak balekotzat jotzen baditu, horietako edozein erabili ahal izango dute.

Txanda berean harria aldatuz gero, atletak, laguntzailearekin eta erlojuarekin batera, harri berria jarriko du oholaren gainean. Kasu horietan, ez da denborarik emango zeregin horietarako, eta, beraz, istripu edo gorabeherarik gertatu ez balitz bezala hartuko da denbora.

13.art.- Kirolariak 500 gramotik gorako puska bat askatzen badu eta beharrezko baldintzak betetzen dituen ordezkoko harriarik ez badu, ezin izango du parte hartzen jarraitu, eta proba galduko du, kirolariak altxaera-kopurua gainditzen badu.

14.art.- Parte-hartzailearen bati harria hautsiz gero, beste parte-hartzailearena erabili ahal izango du, betiere pisatzeko unean epailearen aurrean akordio bat lortu bada.

15.art.- Harri-jasotze proba amaitu ondoren, epaileak 4. artikuluan jasotakoaren arabera jokatu du harrien lastatzeari buruzko edozein erreklamazioren aurrean.

16.art.- Harri-jasotze proba amaitu ondoren, berdinketa gertatuz gero, gorputzean pisu gutxien duen atleta izango da irabazlea, eta, berdinketa gertatuz gero, lehenengo jardun duena.

MATERIAL OSAGARRIAK

17.art.- Erretxina –hautsean edo harrian- eta kola, harrian, eskuetan, besoetan eta harri-jasotzailearen arropetan ere erabil daitezke.

18.art.- Laguntzaileak atletaren eskuan jarri ahal izango ditu ura, fruta, eskuoihala eta abar, eta atletari abanikatu ahal izango dio emanaldian eta atsedendaldietan, eta izerdia kendu ahal izango dio zapi batekin.

Atletak erloju izeneko laguntzailea eduki ahal izango du, eta horrek denborak erraztuko dizkio, atletaren erritmoa aurrez ezarria izan dadin eta ahalik eta errendimendurik onena lor dezan. Era berean, eta aukeran, laguntzaileak laguntzaile-lanak egin ahal izango ditu, atletaren errendimendua eta segurtasuna areagotzeko.

19.art.- Lehiaketarako edo probarako baldintzak ezartzen direnean, argi utziko da ekitaldi bakoitzak zenbat iraungo duen, baita ekitaldien arteko atsedenaldiak ere.

20.art.- Ez bada kontrakoa adierazten, ekitaldietan harri-jasotzaileak txandakatu egingo dira. Hots, aurrez zozketa egin ondoren, lehenengo aurkarietako bat arituko da, eta atsedenaldiaren ondoren, aurkakoak egingo du bere lehenengo ekitaldia. Berriz ere lehenengoa arituko da bere bigarren ekitaldia eginez eta horrela behin da berriz.

21.art.- Zozketa harriak pisatu ondoren burutuko da. Zozketan asmatzen duenak, aukera izango du bietako zein aurkari hasiko den erabakitzeko. Normalean, zozketa txanpon bat airera boteaz egingo da, “zuri ala beltz” sistema erabiliz.

22.art.-

Jasoaldiak ontzat har daitezen honako baldintzak bete behar dira:

a) Jasotzeko harria oholtzaren gainean egongo da, alde zurretik laguntzaileak ezarrita. Harriak erortzerakoan dakarren abiadaz baliatzea ez da onartuko. Horretaz, kontrakorik esaten ez bada, “kanpaia”k ez du balio izango. Txapelketa nahiz lehiaketa ofizialetan “kanpaia”z baliatzea ez da ontzat hartuko.

b) Altxatzaileak, bere baliabide naturaletatik, harria altxatuko du oholtzatik sorbaldaraino. Oholak nibelatuta egon beharko du, eta laua izan beharko du, hau da, ez du zulorik edo beheagunerik izan beharko.

c) Jasoaldia harri-jasotzailearen aurreko aldetik egin beharko da, eta honek egoki irizten dion arropa erabili ahal izango du.

d) Harri-jasotzaileak, bere kasa, harria sorbalda gainean jarri beharko du, harriaren beheko ertzaren edo punturik baxuenaren horizontaltasuna lortuz, gutxienez.

e) Kirolariak, bere kabuz, harria bere sorbaldaren gainean jarri beharko du, gutxienez harriaren beheko ertzaren horizontaltasuna edo punturik baxuena lortuz..

f) Harria, hondar-zakuen gainean, edo bestelako sistema indargetzaileraren baten gainean bota beharko du harri-jasotzaileak, nahi eta nahi ez. Zaku edo sistema hau, taulatuaren aurreko aldean kokatuko da.

g) Harria, harri-jasotzailearen sorbaldaren aurreko aldetik atera behar da. Ez da baliozkotzat joko harria alde batera edo atzeko aldera erortzen bada.

h) Laguntzaileak ezingo du inolaz ere harririk ukitu, harik eta kirolariaren sorbaldatik jaisten hasi arte.

i) Atal hauetan adierazitako guztia beste inoren laguntzarik gabe egin beharko da, taulatutik atera gabe, eta taulatuaren aurreko aldean jarriko den sistema indargetzailearen aurreko aldera pasatu edo ukitu gabe. Taulatua pieza bakarra izan behar du, edo hainbat piezaz osatua egon daiteke. Luzera gehienez 2,4 metrokoa eta zabalera gehienez 1,85 metrokoa izango da.

j) Harri-jasotzailea balantzaka has daiteke jasoaldian zehar, baina jasoaldia baliozkoa izan dadin, (d) atalean aipatutakoa bete beharko du.

23.art.- Epailearen arabera zalantzazko jasoaldia egin denean, zalantza kasuetan beti onena hartu

behar denez kontuan, jasoaldia baliozkoa izango da. Hori bai, Epaileak, beste jasoaldi zalantzazkoa gertatzen bada, EZ BALIOZKotzat joko duela ohartaraziko dio harri-jasotzaileari.

24.art.- Ekitaldi bateko azken jasoaldian, harria sorbalda gainean sestran jartzeko momentuan, txilibituak jo badu edo ekitaldiaren bukaerako soinua entzun bada, jasoaldia ontzat emango da, harri-jasotzaileak harria orduan zaku gainera edo sistema indargetzaile gainera botatzen badu, 23. artikuluan aipatutakoa betez.

25.art.- Arestiko 24. artikuluetan aipatutakoa betetzen ez duten harri-jasotze probek, beraz, Harri-jasotzeko araudia betetzen ez duten probek, kasu zehatz horietarako emandako arauen menpe egongo dira.

MOLEN EZAUGARRIAK

26.art.- Izen honekin ulertzen ditugu:

- a) 5. eta 6. artikuluetan aipatutakoa betetzen ez duten harriak.
- b) Harrobi edo haitz berekoak ez diren harriak.
- c) Ingudeak, burdinazko, berunezko, eta egurrezko piezak, eta abar...

27.art.- Kontratua egitean edo lehiaketako oinarriak ezartzerakoan, pisu-jasotze proba berezi haue-tako baldintzak argi zehaztuko dira.

28.art.- Pisatzeko eta frogatzeko, zein gainontzeko xehetasunetarako, Harri-Jasotzeko Araudian jartzen duenera joko dugu.

29.art.- Dagokion Federazioa izango da probako edo lehiaketako baldintzetan ezarritakoa betetzen denaren arduradun. Federazioek halaber, akta jasoko dute, pisu eta forma ezaugarriak adieraziz, baita jasoaldiak nola egin diren ere.

EUSKADIKO TXAPELKETETARAKO ARAUDIA EUSKADIKO HARRI JASOTZE TXIKIEN TXAPELKETA:

Mailak:

- Orokorra
- 80 kiloz beherakoa

Erabili beharreko harriak:

- Bola - 100 kilo
- Kubikoa - 112,5 kilo
- Zilindrikoa - 125 kilo
- Laukizuzena 125 kilo

Ekitaldiek 3 minutuko iraupena izango dute. Saio bat amaitu eta hurrengoa hasi bitartean gutxienez

hamabost minutuko atsedenaldia izango du kirolariak.

HARRI HANDIAK JASOTZEKO EUSKADIKO TXAPELKETA:

Erabili beharreko harriak:

- Bola - 125 kilo
- Kubikoa - 150 kilo
- Zilindrikoa - 175 kilo / 200 kilo
- Laukizuzena - 175 kilo / 200 kilo

Harri-jasotzaileak hautatuko du harri zilindrikoen eta laukizuzenen pisua. Ezin izango dira biak pisu berekoak izan.

Ekitaldiek 3 minutuko iraupena izango dute. Saio bat amaitu eta hurrengoa hasi bitartean gutxienez hamabost minutuko atsedenaldia izango du kirolariak.

EMAKUMEZKOEN HARRI JASOTZE EUSKADIKO TXAPELKETA

Erabili beharreko harriak:

- Zilindrikoa – 75 kilo
- Kubikoa – 62,5 kilo
- Bola – 62,5 kilo

Ekitaldiek 3 minutuko iraupena izango dute. Saio bat amaitu eta hurrengoa hasi bitartean gutxienez hamabost minutuko atsedenaldia izango du kirolariak.

KINTOPEKOEN EUSKADIKO HARRI-JASOTZE TXAPELKETA

Kintopeko, 21 urtez beherako harri-jasotzailea hartuko dugu, hots, urte horretan 21 urte beteko ez dituen harri-jasotzailea.

Erabili beharreko harriak:

- Kubikoa - 100 kilo
- Zilindriko zaharra - 100 kilo

Ekitaldiek 3 minutuko iraupena izango dute. Saio bat amaitu eta hurrengoa hasi bitartean gutxienez hamabost minutuko atsedenaldia izango du kirolariak.

Ahaleginak egingo dira Euskadiko harri txikien txapelketak urtearen lehen atalean egiteko eta harri handietakoak urtearen bigarren atalean.

KINTOPEKO EUSKADIKO EMAKUMEZKOEN HARRI JASOTZEA

Erabili beharreko harriak:

- Kubikoa – 50 kilo
- Zilindriko zaharra – 50 kilo